



Instituto Navarro de Estudios Sociológicos
IPES
E L E A R I A
Gizarte, Eskaintza eta Teknologia Berriak

BIBLIOTECA DE MUJERES EMAKUMEEN LIBURUTEGIA

OROTIDAZKIA DOKUMENTAZIO HISTORIKO DIGITALIZATUA 2018

Fundación Fundazioa
 **IPES**



“Nafarroan mugimendu feministaren eta emakumeen mugimenduaren ondare historiko dokumentala berreskuratu, zaindu eta zabaltzea”

Erakustaldi:

 Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra
Instituto Navarro para la Igualdad
Nafarroako Berdintzaunerako Institutua

 **FUNDACIÓN
CAJANAVARRA**

IPES Fundazioaren Emakumeen Dokumentazio Zentro eta Liburutegiak proiektu bat abiarazi zuen 2015ean, Nafarroako Kutxa Fundazioak diruz lagundutakoa eta “Nafarroan talde feministen eta emakumeen ondare historiko eta dokumentala zaindu, digitalizatu eta zabaltzea¹” izenekoa.

Informazioaren eta komunikazioaren teknologien garapena aprobetxatuta, hartara, batez ere **erakunde feministena** eta emakumeena **den ondare historiko** bat berreskuratu eta digitalizatzeko prozesua hasi zen, eta, kasu gehienetan, zerikusia duena mugimendu feministaren gogoeta eta bilakaerarekin eta Nafarroan emakumeen eskubideek izan duten aurrerabidearekin. Aurreneko fase batean, Nafarroako emakumeen taldeek eta talde feministek emandako 173 dokumentu –testu osoak– digitalizatu eta herritarren eskura jarrita amaitu zen proiektua.

2018 honetan, jarraipena eman zaio proiektuari eta beste 173 dokumentu digitalizatu ditugu, talde feminista eta emakumeen talde hauetatik iritsi zaizkigunak: Altsasukoak, Berriozarkoak, Lizarrakoak, Asociación Colectivo Alaiz eta Nafarroako feminismo eta sindikalismo emakume aktibistak. Nafarroako emakumeen mugimenduaren eta mugimendu feministaren ondarea eta memoria dira. Horrenbestez, bi faseetan egindako lanaren emaitza da une honetan **346** dokumentu daudela IPES Fundazioko Emakumeen Dokumentazio Zentro eta Liburutegiaren barnean, haien testu osoak daudela eskuragarri, herritar ororentzat, eta munduari zabalik. Hori hala da gure webgunearen eta funtsen bilatzailearen bidez:

<http://ipes.oaistore.es/opac/index.php?codopac=OPIN1>.

<http://www.ipesmujeres.org/biblioteca/documentacion-historica-digitalizada/como-buscar/>

<http://www.ipesmujeres.org/biblioteca/documentacion-historica-digitalizada>

<http://noticias.ipesmujeres.org/2018/11/preservacion-digitalizacion-y-difusion-del-patrimonio-historico-y-cultural-de-las-mujeres-en-navarra/>

¹ Hori da 2015ean Nafarroako Kutxa Fundazioari aurkeztu zitzaion proiektuaren jatorrizko titulua. 2018 honetan, bai Nafarroako Kutxa Fundazioari, bai eta Nafarroako Berdintasunerako Institutuari (biek elkarrekin finantzatu dute proiektua) aurkeztutako proiektuaren titulua hau da: *Emakumeen ondare historiko eta kulturala zaindu, digitalizatu eta zabaltzea*. Edonola ere, behin informazioa lortuta, bildutakoa prozesatuta eta zabalduta, baloratu zen osoagoa zela oroitidazki honen goiburuan dagoen izenburua erabiltzea: *Nafarroan mugimendu feministaren eta emakumeen mugimenduaren ondare historiko dokumentala berreskuratu, zaindu eta zabaltzea*.

HELBURUAK

Proiektuaren helburu nagusia

Nafarroako emakumeen ondare historiko dokumentala berreskuratu eta zaintzea, herritar guztiak izan dezaten eskura, IPES Fundazioaren Dokumentazio Zentro eta Liburutegiko liburutegi digitalaren barnean sartuta. Hori egiteak Nafarroako emakumeen mugimenduaren eta mugimendu feministaren memoria historikoaren zati bat berreskuratzea dakar, ikusgai eginez Interneten, eta, hartara, generoko arrakala digitala murriztean aurrera egitea.

Proiektuaren berariazko helburuak

- **Erabiltzen ez ziren eta hondatzeko arriskuan zeuden dokumentu garrantzitsuak digitalizatzea** (IPES Fundazioko Emakumeen Dokumentazio Zentro eta Liburutegiko karpitetan, Nafarroako beste erakunde feminista, sindikal eta emakumeen erakunde batzuenetan, eta artxibo pertsonaletan zeuden), mugimendu horiek emakumeen eskubideen defentsan egin duten ibilbidea ahazmenetik ateratzeko.
- Emakumeen Dokumentazio Zentro eta Liburutegiko **datu basean biltzea** dokumentu horiek, testu osoa erakutsita Interneten, mugimendu feministaren eta emakumeen mugimenduaren memoria historikoaren zati diren talde horiei **aitortza eginez eta haiek ikusgai eginez**.
- **Herritarrek** dokumentu multzo honen gaineko informazioa **eskuratu ahal izatea erraztea**, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak baliatuta.
- Talde feministekin eta emakumeenekin, kideko erakundeekin, eta dokumentazio zentro eta liburutegiekin **sinergiak sortzea eta sareak sendotzea**, gure ondare historikoa eta soziala batera jartzearen bidez.
- Kultura- eta dokumentu-ondare femenino eta feminista honen existentzia eta garrantziari buruzko **kontzientzia sortzea** Iruñean, Nafarroan, Espainiar Estatuan eta mundu osoan, IPESen webgunearan, sare sozialen eta IPESek lan egiten duen emakumeen liburutegien eta dokumentazio-zentroen sareen bidez.

Lanak balio handia du, alde hauetatik:

- Ondare historiko bat berreskuratu eta zaintzen du (berreskuratzea, hautatzea, prozesatzea eta digitalizatzea).
- Neurri handi batean ezezaguna den informazio bat ikusgai egin eta partekatzen du.
- IPES Fundazioko Emakumeen Dokumentazio Zentro eta Liburutegian (sareko liburutegian, testu osoa) eskuragarri egotearen bidez, herritarren, ikasleen,

espezialisten, ikertzaileen eta abarren esku jartzen da emakumeen mugimenduen eta bereziki emakumeen historia, eta, hartara, ahalbidetzen da etorkizunean ikerketa-garapenak edo bestelako ekintzak egitea, gai honen gaineko informazio eta ezagutza handiagoa izanez.

- Sinergiak sortzen ditu eta IPES Fundazioko Emakumeen Dokumentazio Zentro eta Liburutegiaren, Nafarroako emakumeen talde eta erakundearen eta erakunde feministen, eta LGTBI mugimenduaren arteko harremanak indartzen ditu.

Proiektua bat dator **Europako Kontseiluarekin eta kulturaren arloan lan egiteko duen planarekin** (2011-2014); izan ere, bertan lehen tasun hau aipatzen baitu: *“Sormenezko elkartzeen sustapena, jardunbide emankorrak dituztenak, sortzen dituzten eragin positiboengatik aintzat hartuak eta barnean sartuak, eta ondare kulturala digitalizatzen eta informazioa partekatzeko tresnak egiten jarraitzeko beharra”*.

IPES Fundazioko Emakumeen Dokumentazio Zentro eta Liburutegiak egindako lanak **balio erantsia** dakar Europako Kontseiluak adierazitakoarekiko, emakumeen ondare historikoa berreskuratzearekin **generoko ikuspegia** barnean sartzen baita zeharkako ikuspuntu moduan.

DIGITALIZAZIO PROZESUA

Emakumeen gaineko dokumentu historikoak beren historia bera berreraikitzeke eta beren eskubideak defendatzeko kultura-ondarea dira.

Dokumentu historiko bat garrantzia duena da, nabarmena dena eta ekitaldiren bat bereziki definitzen duena (adierazpen politikoak, adierazpenak edo mezuak, salaketa publikoak, legeria...). Denboran zehar, espazioan zehar informazioa atxikitzen duen dokumentua da, iraganeke memoria gordetzen duena; eta, alde horretatik, ezagutza-iturria da.

Nola egin da?

Bigarren fase honetan, lehenbizikoan barnean hartu ezin izan ziren lurralde-esparruetarantz bideratu dugu arreta. Zehazki, erakunde feministekin eta emakumeen erakundeekin jarri ginen harremanetan, mugimendu feministako ibilbide luzeko aktibista historikoekin, materialak zituztela bagenekielako. Hain zuzen, herri eta talde hauetakoekin: Altsasu, Uharte, Tuter, Lizarra, Antsoain, Berriozar, Barañain, Burlata, Atarrabia, Caparroso, Asociación Colectivo Alaiz, Emakume Internazionalistak eta Iruñeko feminismoko eta sindikalismoko aktibistak, aurreko fasean parte hartu ez zutenak.

IPES Fundazioan aurretik zeuden kontaktuak, udaletako berdintasun-teknikariek eman zituztenak eta “elurrezko bola” sistema abiapuntu hartuta, bilaketa eta kontaktuak handitzen joan ziren, materialek eman zizkigutenak eta proiekturako garrantzia izango zuten funtsak, pertsonalak eta kolektiboak, eskura izateko bidea eman zigutenak.

Bilaketa-lan honetan beharrezkoa zen sendogarri moduan, Antsoain, Berriozar, Barañain, Burlata, Altsasu, Tuterako, Lizarra, Atarrabia eta abarretako berdintasun-teknikariek harremanetan jarri ginen, pentsatuta informazio abantailatsu eta ezin baliotsuagoaren iturri zirela, emakumeen taldeekin eta erakunde feministekin, aktibistekin, sindikatueta, alderdi politikoetako, auzokideen elkarteetako, heziketa arloko elkarteetako emakumeen batzordeekin eta abarrekin harremanetan jartzeko.

Adierazi behar da kontaktuak emaitzak baino gehiago izan zirela. Azkenean, Altsasuko, Berriozarko, Burlatako, Lizarrako eta Tuterako talde feministen eta emakumeen taldeen, Asociación Colectivo Alaiz taldearen eta Nafarroako feminismoko eta sindikalismoko emakume aktibisten dokumentuak lortu ziren. Dokumentuak hautatzeko irizpideak aurkeztu ziren eta haiekin adostu zen bildumen berrikuspena.

Dokumentazioa hautatzeko irizpideak

- **Kronologikoak:** beren informazioa fitxategi elektronikoak, PDFak eta abar jendarteratze aurretikoa da.
- **Geografikoak:** Nafarroaren esparrua lehenetsita eta/edo interes orokorreko dokumentuak, eskuratzen zailak direnak.
- **Edukiaren arabekoak:** nagusiki beren eskubideak defendatzeko emakumeek egindako borroka jasotzen dute, eta bai haien instituzionalizazioa ere Nafarroan. Era berean, deskatalogatuta zeuden testu teorikoak eta egun eskuratzen zailak zirenak ere hautatu dira, landutako garaian funtsezkoak izan zirenak, eta bai Nafarroako emakumei buruzko ikerketa argitaragabeak ere.
- **Formatuaren arabekoak:** hautatutako dokumentuak dokumentu argitaragabeak izan daitezke, kartelak, eranskailuak, egunkari eta/edo aldizkarietako artikulak, eskupaperak, argazkiak, legeak, liburuak, aldizkariak...

- **Beren balioaren ikuspuntutik** (iturriaren legitimitatea), dokumentuek, gutxienez, hura egin duen pertsona edo erakunde bat (egilea)², izenburua eta data dituzte. Azken irizpide hori ez bada betetzen baina ekitaldiaren benetako lekukoak badaude eta data jar badezakete, gutxi gorabehera egiten da.

Fase honetan, dokumentuen bi berrikuspen egin dira: bata tokian bertan, hautaketarako aurretik gaitutako zerbitzu teknikoetako langileek egindakoa; eta bestea, amaierakoa, IPES Fundazioko Emakumeen Dokumentazio Zentro eta Liburutegiko langile arduradunekin koordinatuta egin zena. Kalkulatu denaren arabera, 800 dokumentu inguru berrikusi dira.

Digitalizatutako dokumentazioaren tipologia

Digitalizatorako bildutako dokumentuak izan dira:

Dokumentu historikoak: dokumentazio argitaragabea, haren zati bat Trantsizioari dagokiona. Historiako funtsezko une horretan emakumeen taldeak legezketasunera igaro ziren eta emakumeentzako eskubideen eskaera adierazten hasi ziren. Fase honetan bildutako gehienak ondorengo hamarkadetakoak dira.

Kasu gehienetan **literatura grisa** da, hau da, modu konbentzionalean, liburu edo aldizkari moduan, argitaratuta ez dagoen materiala eta oso askotarikoak diren dokumentuak hartzen dituen barnean, ohikoak diren ekoizpen- eta banaketa-zirkuituetatik kanpo daudenak eta eskuratzen zailak direnak.

Bigarren fase honen emaitza da (2018) **173 dokumentu digitalizatu** direla, eta **aurreko faseko 173ei** gehituta, **346 dokumentu digitalizatu** dira, Nafarroako mugimendu feministaren eta emakumeen mugimenduaren memoria eta ondarea direnak. Une honetan, eta lan horri esker, IPES Fundazioko Dokumentazio Zentro eta Liburutegiko liburutegi digitalaren barnean daude, eta testu osoak eskuragarri dituzte herritar guztiek. Etorkizunean ikerketak egiteko edo beste helburu batzuetarako aukera emango dute. Hori hala egin daiteke gure webgunearen eta funtsen bilatzaile honen bidez: <http://ipes.oaistore.es/opac/index.php?codopac=OPIN1>.

GAIEN ARLOAK

² Kasu batzuetan irizpide hau ez da bete, baina dokumentazioa barnean sartzea erabaki da, duen balio historikoa aintzat hartuta.

Oroitzapenak, hala nola martxoaren 8koa (Emakumeen Nazioarteko Eguna)

Funtsean, adierazpenak, manifestuak, bileretarako deiak, manifestazioetarako deiak, kultura-eta jai-ekitaldietarako deiak eta abar dira.

Teoria feministak, ideiak, korrontekak...

- Emakumeen zapalketa eta klaseen borroka.
- Iraultza sozialista eta emakumeak askatzeko borroka.
- Mugimendu feministaren beraren gaineko hausnarketak.
- Generoko rolak.
- Maskulinitasun-ereduak eta gizon tratatu txarren emaileak.
- Kontzeptu feministak.

Generoko bereizkeriaren eta desberdintasunen salaketa

- Eskolaren esparruan, baterako hezkuntzaren edo koedukazioaren eskaera, sexistak ez diren jostailuen kanpainak.
- Lanaren esparruan, emakume guztientzat eta berariaz etxeko langileentzat eta soldatapeko etxeko laneko langileentzat.
- Osasunaren esparruan.
- Jai-inguruneetan (berdintasunezko festak).
- Emakumeen berdintasuna eta ikusgaitasuna kirolaren esparruan.
- Interseksionalitatea: neska gazteen, etorkinen, hegoaldeko emakumeen egoera bereziki ahula.

Eskubide sexualak, ugalketarakoak eta dibertsitate sexuala

- Nafarroako informazio-zentroen, jaiotza kontrolatzeko, sexu-orientazio eta -heziketako gainean.
- COFES izenekoak Emakumei Arreta emateko Zentro bihurtzea.
- Gay eta lesbianen taldeen aldarrikapenak, beren sexualitatea aske eta estigmatik gabe bizitzeko eskubideari buruz.
- Gay eta lesbianen taldeei egindako bereizkerien salaketa, beren sexu-orientazioarengatik.
- Gay Harrotasunaren Eguna ospatzea.
- Gayen arteko ezkontzak egitearen aldeko mozio bat onartzea Corellan.

Emakumeen ekarpenak beren historiara

- Emakumeen izenak dituzten kaleak.
- Emakumeen kultura-lanak eta sorkuntza-lana ikusgai egitea: literaturan, saiakera feministan, beste arte- eta kultura-forma batzuetan.

Ahalduntzea

- Autodefentsa feministako tailerrak.
- Emakumeen topaketak eta jardunaldi feministak.

Generoko indarkeria emakumeen kontra

- Manifestazioak, salaketak, eraso sexisten, bortxaketen eta tratu txarren kontrako erantzunak.
- Emakumeen kontrako genero-indarkeriarekin lotutako legeak erreformatzeko proposamenak.
- Jaietako eraso sexisten kontrako estrategiak.
- Tuteran emakumeentzako larrialdi-zerbitzua kendu izanagatik egindako salaketak.
- Tratu txarren, eraso sexisten, sexu-jazarpenaren kontrako kanpainak.
- Hiltzaileen eta tratu txarren egileen kontrako kanpainak, eta indarkeria matxistaren ondorioz hildako emakumeen oroimenez (Silvia Pérez, M^a Puy Pérez).
- Proxeneten eta emakumeen trafikoaren kontrako kanpainak eta salaketak (Buñuelgo putetxearen jabearen kontrako epaiketa).
- Emakumeentzako etxe-babesleku baten aldarrikapena Tuteran.

Berdintasunerako erakundeak eta zerbitzuak eratu eta garatzea

- Emakumearen Kontseilua Tuteran.
- Emakumearen Batzordea Lizarran.
- Emakumeei arreta emateko zerbitzuak.
- Emakumeei informazio juridikoa emateko zerbitzua.

Administrazioei egindako eskaerak

- Guneak lagatzeko emakumeen taldeek egindako eskaerak.
- Diru-laguntzen eskaerak.
- Berdintasuneko erakundeak sortzeko proposamenak.

Interes orokorreko gaiak

- Antimilitarismoa eta feminismoa (Errege Bardeako tiro-poligonoaren kontra eta Gladys del Estal gogoan izateko).

DOKUMENTUEN EGILEAK

Mugimendu feminista, emakumeen mugimendua eta LGTBI kolektiboak

- ANDREA
- ASAMBLEA DE MUJERES DE ESTELLA/LIZARRAKO EMAKUMEEN ASANBLADA
- ASAMBLEA DE MUJERES DE TUDELA
- ALTSASUKO FEMINISTAK
- BILGUNE FEMINISTA
- COORDINADORA DE COLECTIVOS FEMINISTAS DE ESTELLA-LIZARRA
- GRUPO DE MUJERES DE BERRIOZAR
- CENTROS DE CULTURA POPULAR ALAIZ
- CENTROS DE MUJERES GRISERAS, TAZÓN Y LUORDES
- EGIZAN
- COORDINADORA FEMINISTA DE NAVARRA
- EAM (EMAKUME ASKATASUNAREN MUGIMENDUA)
- U.L.M. (UNIÓN PARA LA LIBERACIÓN DE LA MUJER)
- COMISIÓN DE MUJER DE UGT DE NAVARRA
- KOLEKTIVO LESBICO GAY DE TUDELA

Berdintasunerako erakundeak eta baliabideak

- CONSEJO DE LA MUJER DE TUDELA
- COMISIÓN DE LA MUJER DE ESTELLA-LIZARRA
- COMISIÓN DE MUJER DE BURLADA
- CENTRO MUNICIPAL DE ATENCIÓN A LA MUJER “ALBA” DE BERRIOZAR
- CENTRO DE ORIENTACIÓN SEXUAL Y CONTROL DE LA NATALIDAD “LAIRA” DE BERRIOZAR

Mugimendu sozialak, sindikatuak, elkarteak, erakundeak...

- UGT DE NAVARRA
- ESK-CUIS (Ezker Sindikalaren Koordinakundea-Coordinadora Unitaria de Izquierda)

- Sindical)
- ESK (Ezker Sindikalaren Konbergentzia)
- ASK-SU
- CSUT
- CCOO
- LAB
- ALTSASUKO GAZTE ASAMBLADA
- COORDINADORA DE AA.VV.
- CONCEJO DE BERRIOZAR
- GESTORA PRO-AMNISTÍA

Alderdi politikoak

- LKI-LCR
- LKI-LC
- MCE-EMK
- PTE
- EE
- PCE
- JARRAI
- HASI
- HERRI BATASUNA
- JUVENTUDES COMUNISTAS REVOLUCIONARIAS
- IRAULTZA TALDEA-GASTEDI KOMUNISTAREN LIGA
- BATZARRE
- LBF-FUT (FRENTE POR LA UNIDAD DE LOS TRABAJADORES)

Hedabideak

- LA VOZ DE LA RIBERA
- DIARIO DE NOTICIAS
- DIARIO DE NAVARRA
- EGIN

DIGITALIZATUTAKO DOKUMENTUEN FORMATUA

- Eskupaperak, panfletoak.
- Buletinak.
- Eztabaidarako testuak eta txostenak erakunde feministetan, emakumeen ataletan alderdi politiko eta sindikatuetan, jardunaldi feministetan, mintzaldietan eta feminismoen eta emakumeen mugimenduaren gaineko alderdi politikoen kongresuetan.
- Legezko testuak, araudiak, estatutuak, Administrazioari egindako eskaerak.
- Adierazpenak, jakinarazpenak, iritzi-emateak, salaketak.
- Administrazioako dokumentuak.
- Egunkarietako artikuluak.
- Kasu gehienetan, 10 orrialde baino gutxiago dituzten dokumentuak dira.

ESPARRU GEOGRAFIKOA

- Nafarroa.
- Euskadi.

KRONOLOGIA

Bildutako dokumentazioa 1970eko hamarkada eta mende berriaren hasiera artekoa da.

ZABALKUNDEA EGITEKO KANPAINA

Zabalkundea egiteko kanpaina bereiz eta segmentuetan zatituta egin da, bai hartzaileei dagokienez, bai eta erabilitako hedabideei dagokienez ere, emakumeen ondare kultural hau ezagut dadin helburu komuna izanda. Biztanleria hartzailea dela-eta, liburutegiko erabiltzaileengana jo dugu, langile espezializatuengana, hedabideetara, emakumeen erakunde eta sareetara, berdintasunaren alde lan egiten duten gizarte-erakundeetara eta, oro har, herritarrengana. Baliabideak direla-eta, askotarikoak eta osagarriak izan dira:

- Eskupaper digital bat egitea.
- Buletin monografiko bat egitea.
- Mezu elektronikoen bidalketa masiboak, gure kontaktuen zerrendatik abiatuta, proiektuaren zabalkundea egiteko.

- Informazioa webgune bidez sendotzea. 2015ean webgunean sortutako berariazko atalean sartzea, proiektua ikusgai egiteko eta digitalizatutako dokumentazioa zehatz-mehatz ezagut dadin.
- Emakumeen Dokumentazio Zentro eta Liburutegiko Facebooketik eta blogetik zabalkundea egitea.

ESKERRAK

Bereziki eskertu nahi ditugu IPES Fundazioko Dokumentazio Zentro eta Liburutegira iritsi diren dokumentuen iturri garrantzitsu izan diren pertsonak eta taldeak: **Txaro Berzosa** Tuteran, **Elena Urabayen** Lizarran, **Gurutze Arregi** Altsasun, **Remei Font** Uhartan, **Pili Hurtado** Berriozarren, **Blanca Fernández Viguera** eta **Asociación Colectivo Alaiz**.

Izugarrizko laguntza eman ziguten hainbat herritako berdintasun teknikariek kontaktuak izateko, besteak beste, Maite López Morentinek (Lizarra), Idoia Goikoetxeak (Altsasu), Ana Carmen Senosiáínek (Burlata), Irune Gastón Ripak (Atarrabia), Iruña Martínez Loreak (Barañain), Eva Isturizek (Antsoain) eta dokumentu baliotsuak eman zizkiguten emakumeekiko konexioa egin zuten beste batzuk, esate baterako, Marian Liberalek. Denei gure eskerrik zintzoena eman nahi diegu.

Azkenik, eta amaitzeko, berretsi nahi da dokumentazio hau balio handikoa dela, **Nafarroako mugimendu feminista eta sozialaren historiaren zati baita**. Horrenbestez, berreskuratzeak eta zaintzea ahalbidetzeak berekin dakar mugimendu sozial horien existentzia jasota uztea, garrantzi handikoak Nafarroako bizitzaren garapenean.